



SAN PRUDENTZIO, Biografia

Ez dago jaiotzaren eta heriotzaren data zehatzik, baina kontuan izan da IV. mendearen amaieraren eta VI. mendearen amaieraren artean bizi ahal izan zela.

Armentian jaio eta bertan bizi izan zen 15 urtera arte. Armentia, garai hartan, Arabako herrixka bat zen eta Arabako zaindariaren eguna ospatzeko erromeslekua. Ondoren, Saturio bere irakaslearekin joan zen bakardadean bizitzera, Soriatik gertu, 7 urtez. Horren ostean, Calahorrara abiatu zen predikari, eta bertan ebanjelizazioa eta mirarizko sendaketak ere egin zituen. Baina, hura ez zen berak egin nahi zuen lana eta ospeak gainditu egin zuen. Hortaz, Tarazonara ihes egin zuen eta hango katedralean apaiz ibili zen, herriko gotzain izan arte.

Burgo de Osman hil zen, Gotzaingoaren eta Burgosko herriko apaizen arteko tirabiran bitartekari izan ostean.

San Prudentzio Logroñotik hurbil dago lurperatuta, oso istorio bitxi bat dela eta. Bere elizbarrutitik kanpo hil zenez, Burgo de Osman, eta egin zituen mirariek ospetsu egin zuten, eztabaida sortu zen non lurperatu behar zen erabakitzeko orduan.



Kondairaren arabera, oso erraz konpondu zuten. San Prudentzioren gorpua hura bizirik zegoela erabiltzen zuen zaldiaren gainean jarri zuten eta alde egiten utzi zioten. Zaldia Laturce mendiaren magaleko haitzulo batean gelditu zen, eta han lurperatu zuten San Prudentzio.

1643an zaindaritzat hartu nahi izan zen San Prudentzio, baina 1698an izendatu zuten ofizialki Arabako zaindari. Harrezkero, apirilaren 28an ospatzen dugu arabarron jaieguna, San Prudentzioren omenez.



SAN PRUDENTZIO ETA SAN ESTEBAN ERMITA, OKONDO

Hasieran, San Prudentziori baino ez zioten eskaini; baina San Esteban ermita hondatu zenetik, biak gurtzen dituzte ermita berean.

Oinplano angeluzuzena du, eta hiru ganga-zatik, ertz-gangaren bi zatik eta luneta-gangaren bi zatik estaltzen dute. Horiek guztiak erdi-puntuko parpain-arkuek bereizten dituzte. Oinplano karratuko eta ertz-gangako sakristia du. Ataria hegoaldean dago, eta apaingarririk gabeko ateburua du.



Argazkia: Iñaki Garcia Uribe
hirukia duena.

Erretaula zutabe korintoarreko marko neoklasiko xumea da, goialdean frontoi

San Prudentzio eta San Estebanen irudiak nagusitzen dira goialdean. Erretaula Alejo de Unzagak egin zuen 1821ean.



Argazkia: Iñaki Garcia Uribe



Argazkia: Iñaki Garcia Uribe



Argazkia: Iñaki Garcia Uribe



Argazkia: Iñaki Garcia Uribe



SAN PRUDENTZIO JAIA

Datorren asteartean ospatuko dugu San Prudentzio jaia, Arabako zaindariaren eguna. Aurten, COVID-19ak eragin duen krisia dela eta, bertan behera gelditu dira jaietako ekitaldi guztiak.

Nolanahi ere, Udalak proposatzen du hilaren 28an, 20:00etan, jaia ospatzea eta zaindaria ohoratzea herritar bakoitzak, ahal duen neurrian, bere etxetik joko duen danborrada

Arabako Foru ospakizun guztiekin, ezberdinak eta ospakizunekin.



sinboliko baten bidez.

Aldundiak bat egin du gure lurraldea bezain anitzak izango diren

Ospakizun horiek, ahantzarazi zer egoera; hortaz,

ere une bat aurkitu behar dugu krisiaren ondorioz hil diren guztiak gogoratzeko.

ordea, ezin digute gogorra den bizi dugun San Prudentzio egunean

Hori dela eta, Okondoko Udalak mastaren erdian jarriko ditu banderak apirilaren 28an.